



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

**Bertan dira**

Herriko Taldea.  
Ernesto Dominguez Olea jauna.  
Imanol Baleztena Elizalde jauna.  
Leire Bazterrika Loiarde andrea.  
Francisco Michelena Celayeta jauna.  
Ezeziel Loiarde Santesteban jauna.  
Martxel Elizalde Elizalde.  
Pedro Hilario Santesteban Loyarte.

**Idazkaria**

Beñat Ripodas Beroiz jauna.

Zubieta herrian, Udaletxeko udalbatza-aretoan, bi mila eta hamabederatziko ekainaren 15eko goizeko 8ak, eta udaleko idazkaria bertan dela, maiatzaren 26ko udal-hauteskundeetan aukeratuak izan ziren eta albo batera aipatu diren zinegotzi hautatu berriak bildu dira.

Bilera honen xedea da Udalbatza eratzeko bilkura egitea eta alkatea aukeratzea, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren (aurrerantzean HAOLO) 195. eta 196. artikuluetan, eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak (aurrerantzean AFE) onartutako Toki Erakundeen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamenduaren 37. artikuluan xedatutakoa betez.

Bilkurari hasiera emanda, idazkariak bertan bildu direnei eratze-bilkura hau eta alkatea aukeratzea arautzen dituen araudiaren berri eman die, baita zinegotzia izateko eta beren karguaz jabetzeko bete beharreko baldintzen berri ere. Halaber, hautetsiak aldarrikatzeko aktaren berri eman du, Iruñea zonaldeko Hauteskunde Batzordeak 2019eko ekainaren 4ean emana.

**ADIN MAHAIA ERATU**

HAOLOren 195.2. eta AFERen 37.2 artikuluetan xedatutakoa betez, Adin Mahaia eratu da, ekitaldian dauden adinez zaharrenak eta gazteenak osatu dutena; alegia, Francisco Michelena Celayeta jauna —mahaiburua— eta Imanol Baleztena Elizalde jauna —mahaikidea—. Idazkaria, berriz, udalarena bera izanen da, hau da, Beñat Ripodas Beroiz jauna.

**UDALBATZA ERATU**

Aurkeztutako hautetsien kredentzialak eta akreditazioak egiaztatu dituzte Adin Mahaikideek eta onespena eman diete.

Halaber, Adin Mahaiak egiaztatu du bertan diren hautetsi guztiek egin dutela — Udaletxeko idazkariaren aitzinean— egon litekeen bateraezintasunei eta diru-sarrerak dakarzkieten edo ekar diezazkieten jardueri buruzko aitortpena eta beren ondare-ondasunei buruzko aitortpena (Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 75.7. artikulua).

Jarraian, HAOLOren 108.8. artikuluan xedatutakoa betez, Adin Mahaiko mahaiburuak galdera hau egin die zinegotziei banan banan: *“zure kontzientzia eta ohoregatik zin egiten edo promes egiten duzu zinegotzi izateak ezartzen dizkizun betebeharrak Erregearekiko leialtasunez zintzoki beteko dituzula, eta Konstituzioa Estatuaren arau nagusi bezala zaindu eta zainaraziko duzula?”* Zinegotzi guztiek promes egin dute zera esanez: *“legeak hala beharturik, promes egiten dut, ez nire borondatearen borondatez”*.



## ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

Aurreko izapide guztiak eginda, bertan diren hautetsi guztiak beren zinegotzi-karguaz jabetu dira. Horren ondoren, zinegotzi-hautetsien erabateko gehiengoa bilkuran dela egiaztatuta, Mahaiak, mahaiburuaren bitartez, udalbatza eratutzat eman du.

### ALKATEA AUKERATU

Jarraian, idazkari jaunak, Adin Mahaiaren aginduz, irakurri ditu alkatea aukeratzeko jasotako arauak (HAOLOren 196. artikulua).

Ondoren, mahaiburuak galdetu du hauteskunde-zerrendaburuetatik nork aldarrikatzen duen bere burua alkate izateko hautagai. Honako honek aurkeztu du bere burua:

Ernesto Dominguez Olea jaunak, Herriko Taldea alderdiaren hauteskunde-zerrendaburua.

Jarraian, eta bozka sekreturen bitartez, alkatea aukeratu da. Horretarako, zinegotziak Adin Mahaira deituko dira Zonaldeko Hauteskunde Batzordearen egiaztagirietan ageri diren ordenan, alkatea aukeratzeko prestatutako kutxan beren botoa eman dezaten.

Bozketa amaituta, Adin Mahaiak boto-kontaketa eginen du. Emaitza honako hau da:

	Letran	Zenbakitan
- Emandako botoak:	Zazpi	7
- Boto balioudunak:	Zazpi	7
- Boto zuriak:	Zero	0
- Balio gabeko botoak:	Zero	0

Botoak honela banatu dira: Ernesto Dominguez Olea jauna, 7 boto.

Hortaz, Ernesto Dominguez Olea jauna aukeratu dute alkate, zinegotzi-kopuruko erabateko gehiengoa lortu baitu. Horrenbestez, mahaiburuak alkate izendatu du.

Ondoren, Ernesto Dominguez Olea jaunak onartu egin du alkate izatea. Udalbatza aurrean duela, promes egin du kargu hori beteko duela, kargu horrek berekin dakartzan ahalmen, eskubide eta betebeharrak erregearikiko leialtasunez zintzo beteko dituela, eta Estatuaren funtsezko araua den konstituzioa bete eta betearaziko duela promes egin du, zera esanez: *“legeak hala beharturik, promes egiten dut, ez nire borondatearen borondatez”*.

Horrenbestez, Ernesto Dominguez Olea jaunak hartu egin du alkate-kargua eta osoko bilkuraren buru jarri da.

Bilera honen deiaren xedea beteta, alkate jaunak hitz batzuk esan ditu.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, udalburuak bilkura amaitutzat jo du goian aipatutako eguneko goizeko 08:30ak direnean. Idazkaria naizen honek aktaren egiaztapena egiten dut.



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

## **EXTRACTO DEL ACTA DE LA SESIÓN DE 15 DE JUNIO DE 2019, DE CONSTITUCIÓN DE LA CORPORACIÓN MUNICIPAL Y ELECCIÓN DE ALCALDE**

Se inicia la sesión a las 8:00 horas asistiendo los concejales electos que se relacionan.

Tras presentar ante el Secretario las credenciales de concejal y las declaraciones sobre causas de posible incompatibilidad y sobre actividades que les proporcionen o puedan proporcionar ingresos económicos, así como declaración de sus bienes patrimoniales, se procede a la formación de la Mesa de Edad.

La Mesa de Edad comprueba las credenciales de concejal y, a continuación, su presidente requiere a los concejales la prestación de juramento o promesa según la fórmula establecida, prometiendo los concejales según la fórmula establecida y por imperativo legal.

Se declara constituida la Corporación de Zubieta.

Tras informar sobre los requisitos legales para proceder a la elección de alcalde, se postula como candidato a la Alcaldía el cabeza de lista electoral de Herriko Taldea. Tras procederse a la votación, resulta elegido por 7 votos D. Ernesto Dominguez Olea.

Se declara proclamado Alcalde a D. Ernesto Dominguez Olea, que acepta el cargo y toma posesión del mismo.

Se levanta la sesión a las 8:30 horas.